


KANALAK

Gure proiektua aurrera eramateko eta bezeroarekin harremanetan jartzeko kanal egokiena internet dela uste dugu, hain zuzen ere, gure enpresaren webgunea (aukeraketabizi.eus). Horrez gain, posta elektronikoa ere erabiliko dugu bezeroekin zuzenean kontaktuan jartzeko. Kanal hauek gure enpresako kanal nagusiak dira eta hauek dira bezeroarekin harreman zuzena ahalbidetzen dutenak. Kanalen helburua, bezeroetara iristea, informazioa partekatzea eta konfiantza sortzea da, eta horretarako internetez baliatzea aukera seguru bat dela uste dugu.



Proiektuan parte hartu nahi duten bezeroek webgunean izen ematea egin dezakete. Saio guztien informazioa ere egongo da bertan zehazuta, besteak beste, data, ordutegia eta lekua. Gainera, ikasleek, etorkizuneko ikasketak aukeratzen ari direnek, proiektuko graduei buruzko informazioa ere irakur dezakete, aukera ezberdinak aztertu eta gustukoak dituztenetan izena eman. Webguneak erabilera erraztasuna bilatzen du, argia eta ikasleentzat pentsatua da, informazioa modu ordenatuan dago. Horregatik, ikasleak galdu gabe nabigatzeko moduko webgunea da. Beraz, webgunea ez da izen emateko kanal bat bakarrik, baizik eta berezoak, hau da, ikasleak, enpresarekin lehen kontaktu bat izateko, informazioa jasotzeko eta erabakia hartzeko gunea da. Ondorioz, webgunea bezeroaren prozesuko fase askotan azaltzen da.

Bestalde, posta elektronikoaren bitartez, bezeroari proiektuan izen eman duela baieztatuko zaio eta ikasleak edozein arazo edukiz gero, kontakta gaitzake. Bezeroak, prozesuaren edozein momentutan zalantzak argitu ditzake honen bidez, eta guretzat, informazio osagarria bidaltzeko eta jakinarazpenak edo oharrak zabaltzeko modu egokia eta erraza da, adibidez, saio bat orduz aldatzen bada. Gure enpresak, garrantzi handia ematen dio salmenta ondorengo harremanari, izena eman ondoren ez da kontaktua galtzen, bezeroekiko lotura hori mantendu egiten da.

Posta elektronikoak, bezeroarekiko arreta pertsonala eta zuzena bilatzen du, eta horrek ikasleari segurtasuna ematen dio.

Kanal hauek egokiak dira gure merkatu-segmentuarentzat, batxilergoan edo gradu batean dauden 16-18 ute bitarteko ikasleentzat, gaur egun gazteek eguna interneten konektatuta igarotzen dutelako, eta horretarako erraztasun handia dutelako. Gainera, nahiago dute informazioa modu azkar eta errazean eskuratu. Horregatik, internet erabiltzea da modu onena, bezeroek ondo ezgutzen dutelako eta ohituta daudelako. Gainera, gure kanalek, ikasleari autonomia ematen diote, beraien kabuz informazioa jasotzeko eta aukeraketa egiteko. Autonomia hori ematea garrantzitsua dela iruditzen zaigu, etorkizunerako behar izango dutelako.

Azkenean, kanalak, enpresak arrakasta izateko funtsezkoak dira eta bezeroekiko harremana bermatzen laguntzen dute. Horregatik, ezinbestekoa da ikasleen erosotasuna eta onura bilatzea. Kanal egokiak izateak, proiektuaren kalitatea hobetzen du eta ikasleek esperientzia ona izatea ziurtatzen da. Gainera, kanalekiko esperientzia onak, ikasleen konfiantza handitzen du eta proiektua sinesgarriagoa eta seguruagoa bihurtzen da beraientzat.